# Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 65. saioa
## Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 65ª

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2016ko martxoaren 8a**/ 8 de marzo de 2016<br>**Gobernu Batzordearen Sala**/Sala de Comisión de Gobierno<br>**18:30etan** / A las 18:30 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **20:35ean /** A las 20:35 horas |

**GAI-ZERRRENDA:**

ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko bilerako aktaren onarpena** | 1. Aprobación del acta de la última reunión |
| **2. Arautegi aldaketa-proposamena aztertzea** | 2. Evaluación de la propuesta de cambio de Reglamento |
| **3. 2016ko Planning-a** | 3. Planificación para 2016 |
| **4. Hondakinak eta ekonomia zirkularra** | 4. Residuos y economía circular |
| **5. Sentsibilizazioa (Plus 55)** | 5. Sensibilización (Plus 55) |
| **6. Klima 2050 Estrategia** | 6. Estrategia Klima 2050 |
| **7. Norberak lekarkeena** | 7. Ruegos y preguntas |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Gune Publikoetako, Ekologiako eta Festa Jardueretako zinegotzi ordezkaria**<br>Concejal delegado de Espacios Públicos, Ecología y Actividades Festivas |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | **1. EAJ-PNV**<br>**2. EH BILDU**<br>**3. PSE**<br>**4. PP**<br>**5. IRABAZI** |
| **KONTSEILUKO BOKALAK**<br>VOCALES DEL CONSEJO | **1. ARANZADI Zientzia Elkartea**<br>**2. AZTI TECNALIA**<br>**3. COAVN Delegación Gipuzkoa**<br>**4. DONOSTIALDEKO ESKOLAKO AGENDA 21**<br>**5. DONOSTIKAT Elkartea**<br>**6. EGUZKI**<br>**7. EHNE Gipuzkoa**<br>**8. EKIAN Bioeraikuntza Profesionalen Elkartea**<br>**9. EMAUS Fundación Social**<br>**10. HARITZALDE**<br>**11. INGEBA Sociedad Instituto Geográfico Vasco**<br>**12. INGURUGELA – CEIDA**<br>**13. KALAPIE Hiriko Txirrindularien Elkartea**<br>**14. SEO BIRD LIFE**<br>**15. Herritar norbanakoa 1/ Representante ciudadano nº 1** |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | **ITSAS ENARA ORNITOLOGIA ELKARTEA**<br>**KULTURE STAR BASQUE**<br>**Herritar norbanakoa 2 / Representante ciudadano nº 2**<br>**Herritar norbanakoa 3 / Representante ciudadano nº 3** |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzu burua**<br>Secretaría del Consejo. Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad<br>**Ingurumen Saileko Zuzendaria**<br>Director del Departamento de Medio Ambiente |
| **AHOLKULARITZA TEKNIKOA**<br>ASESORIA TÉCNICA | **Haizea Ikerketa S.L** |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **22 IKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Ekologiako zinegotzia, Kontseiluko idazkaria, 1 udal ordezkari tekniko eta aholkularitza teknikoko ordezkari 1.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = **5**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **17**<br><br>22 personas integrantes del CSMA, además del Concejal Delegado de Ecología, la secretaría del Consejo, 1 representante del cuerpo técnico municipal y 1 persona de la asesoría técnica. |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | 943 392229<br>haizea@haizeaikerketa.com |

## Saioaren bilakaera:
Desarrollo de la sesión:

### 1. Aurreko bilerako aktaren onarpena

Aurreko akta onartu da.

### 2. Arautegi aldaketa-proposamena aztertzea

Lehendakaritzak jakinarazi du arautegi aldaketaren arabera, hemendik aurrera talde politikoen ordez zinegotzi ez diren pertsonek, hautetsi ez diren ordezkariek, alegia, joan ahal izango dutela Kontseilura eta aldaketa hau Osoko Bilkuran onartu dela.

Ingeba eta Aranzadiko ordezkarien aburuz aldaketa honek ordezkaritza politikoa “deskafeinatzeko” arriskua sortzen du.

Aktan eta dagokion txostenean jasoko da.

### 3. 2016ko Planning-a

Lehendakaritzak 2016rako saioetarako egutegi eta gai zerrendak prestatzeko Batzorde Iraunkorrak nola lan egin duen azaldu du. Gaien arteko afinitatearen arabera antolatu diren 47 gai eskaera jaso direla argitzen du. Lau ohiko bilera egitea eta hiru Lan Talde sortzea proposatu da. Lan Taldeak ondoko gaien inguruak izango dira: eraikingintzari buruzko ordenantza, zaratari buruzko ordenantza eta itsas bazterrarekin zerikusia duten proposamenak. turismo iraunkorraren gaia 2017rako utziko litzateke, Udalak hurrengo urtaldian ildo horretan lan egiteko asmotan baitago.

Aranzadiko ordezkariak, eta itsas bazterrari buruzko gaiari dagokionean, Lan Taldeen ondorioak urteko azken saioan sartzea beranduegi dela uste du eta, beraz, uda aurreko ohiko saio batean, gai zerrendaren baitako puntu gisa, trata dadila proposatu du.

Iritziak elkar trukatu ondoren, itsas bazterreko gaia maiatzerako aurreikusita dagoen saioan sartzea eta saio horretan, hala badagokio, gai honen inguruko Lan Talde bat sortzea onartu da.

Idazkaritzak jakinarazi du bi lan taldeetan (eraikingintzaren ordenantza eta zarataren ordenantza) parte hartu nahi duten entitateentzako martxoak 24 bitarteko epea ireki dela).

### 4. Hondakinak eta ekonomia zirkularra

Emauseko ordezkariak ekonomia zirkularraren inguruko aurkezpen laburra egin du eta tamaina handiko hondakinei, aparailu elektriko eta elektronikoen hondakinei (RAEE) eta ehungintza hondakinei dagokienean kontzeptu hau atez ateko etxe bilketako zerbitzu publiko bat medio nola jaso daitekeen azaltzen du ondoren. Gogora ekartzen du 110/2015 Dekretuak hondakin elektriko eta elektronikoak bide publikoan abandonatzea debekatzen duela. Iruñean garatu duten sistema ipini du adibide gisa eta Emausen dauzkaten berrerabilera eta kudeaketa datuak eskaini ditu ondoren.

Idazkaritzak Udalak hondakinen prebentzioaren eta gaikako bilketaren inguruan garatzen ari diren jardueren inguruko azalpenak eskaini ditu, horrekin batera gaikako

### 1. Aprobación del acta de la última reunión

Se aprueba el acta anterior.

### 2. Evaluación de la propuesta de cambio de Reglamento

La Presidencia explica que el cambio de normativa propone que en representación de los grupos políticos puedan acudir al Consejo personas que no sean concejales, esto es, representantes que no sean cargos electos. Este cambio ha sido aprobado en Pleno.

Tanto el representante de Ingeba como el de Aranzadi opinan que este cambio hace que se pueda “descafeinar” la representación política.

Se recoge en acta y en el informe correspondiente.

### 3. Planificación para 2016

La Presidencia explica cómo ha trabajado la Comisión permanente para preparar el calendario y los órdenes del día de las sesiones para 2016. Explica que se han recibido 47 solicitudes de temas y se ha agrupado por afinidad temática. Se propone realizar cuatro sesiones ordinarias y crear tres Grupos de Trabajo para los siguientes temas: ordenanza de edificación, ordenanza de ruidos y propuestas relacionadas con la costa. Para 2017 se dejaría el tema del turismo sostenible, ya que el Ayuntamiento prevé trabajar esa línea en el siguiente ejercicio.

El representante de Aranzadi considera que incluir en la última sesión del año las conclusiones de los Grupos de Trabajo es muy tarde en lo que respecta al tema de costas. Propone tratar el tema en una sesión ordinaria antes de verano y como punto del orden del día.

Tras un intercambio de ideas se aprueba incluir el tema de costas en la sesión prevista para mayo y, tras dicha sesión, crear un Grupo de Trabajo sobre esta tema si se estima necesario.

La Secretaría informa que se abre el plazo hasta el 24 de marzo para las entidades interesadas en participar en los dos grupos de trabajo (ordenanza de edificación y ordenanza de ruidos).

### 4. Residuos y economía circular

La representante de Emaús realiza una breve exposición sobre lo que es la economía circular. El representante de Emaús explica cómo se puede plasmar el concepto de economía circular aplicada a la gestión de los residuos voluminosos, RAEE y textiles, con un servicio público de recogida domiciliaria puerta a puerta. Recuerda que el Real Decreto 110/2015 prohíbe el abandono de RAEE en vía pública. Pone como ejemplo el sistema desarrollado en Iruña y ofrece datos de reutilización y gestión en Emaús.

La Secretaría realiza una exposición sobre las actuaciones que se desarrollan desde el Ayuntamiento en materia de prevención de residuos y recogida selectiva, aportando datos de recogida selectiva por fracciones y de los programas de compostaje individual y comunitario. Informa

bilketan zatiki bakoitzari eta banakako zein auzo konpostatzeari dagozkion datuak eman ditu. Jakinarazten du baita ere, urtaldi honetarako aurreikusita dauzkaten lan ildoen artean ondokoak daudela: biohondakin edukiontzietan pisu datuak biltzeko sistema ezartzea, hondakinen mapa sortzea, tamaina handiko hondakinen etxez etxeko bilketaren esperientzia pilotu bat martxan jartzea eta eraikuntza eta eraiste hondakinen gaiaren inguruan Ihoberekin batera lan egitea.

Tamaina handiko hondakinen bilketaren inguruko eztabaida piztu da, besteak beste, ondoko gako puntuen inguruan: kostua, arlo teknikoak, borondate politikoa,eta sorkuntza osoarekin alderatuz osatzen duten bolumena.

Eguzkiko ordezkariaren aburuz ez da egokia ur kontsumoaren arabera aplikatzea hondakinen tasa aldakorra, bi kontsumook ez baitatoz beti eskutik. Horrez gain, tasa paperean ez jasotzea zaharrak diren pertsonentzat eragozpen handia dela eta gai honi noizbait hel diezaiotela eskatu du.

PPko ordezkariak jakinarazten du batzorde baten baitan ari direla uraren kontsumoari loturiko tasaren gaia lantzen.

Irabaziko ordezkariak Facebook-en partikularrek elkarri gauzak emateko talde bat dagoela jakitera ematen du.

## 5. Sentsibilizazioa (Plus 55)

Kalapieko ordezkariak Plus 55 programaren baitako adineko pertsonentzako ingurumeneko tailerraren inguruko aurkezpena egin du.

Tailerra gehiago hedatzeko eta beste entitate edo ekimenekin, Eskolako Agenda 21 edo Aztertu programarekin esaterako, sinergiak sortzeko aukeraren inguruan eztabaidatu da.

[PP-ko ordezkariak bilera utzi du]

## 6. Klima 2050 Estrategia

Ingurumen Zuzendariak jakitera eman du gaiarekin aurrera doazela eta hurrengo saioan zehaztasun handiagoko azalpenak emango dituztela. Jakinarazi du laguntza teknikoa izango dela bai ingurumen alorrean eta baita partaidetzan ere (Ingurumen Saila eta Partaidetza Sailaren eskutik hurrenez hurren).

## 8. Norberak lerkarkeena

Aranzadiko ordezkariak Ondarretan erakusgarri dauden iturrietan ahal izanez gero ur korronte jarraia eteteko sistema bat ipin dadila eskatu du. Idazkaritzak adierazitako kasua ikertuko dela adierazi du, eta arduradunei ura ez xahutzea eskatuko zaie.

Haritzaldeko ordezkariak egunkarian Foru Aldundiarekin burututako akordio baten gainean agertutako informazioa egia ote den galdetu du, zeinaren bidez Foru Aldundia izango baiten Mendizorrotzeko lurren kudeaketa egingo duena. Lehendakaritzak adierazi du gisa horretako akordio baten berririk ez duela nahiz eta eskaerarik baden udal lursailak artzaintza/abeltzantza helburuetarako erabil daitezen. Nola nahi ere, ez dela Udalaren asmoa ildo horretan lan egitea, eremuaren Kudeaketa Plana garatzea baizik.

Eguzkiko ordezkariak Artikutza eta Mendizorrotzen gertatutako azken suteen inguruko informazioa eskatu du,

que entre las líneas de trabajo para este ejercicio destacan el establecimiento de un sistema recogida datos de peso por contenedor de biorresiduo, la elaboración de un mapa de residuos, poner en marcha una experiencia piloto de recogida a domicilio de residuos voluminosos y trabajar el tema de los residuos de construcción y demolición junto con Ihobe.

Se abre un debate en torno al sistema de recogida domiciliaria de voluminosos, incidiendo en aspectos como el coste, los aspecto técnicos, la voluntad política, el volumen que representan sobre la generación total, etc.

El representante de Eguzki considera que aplicar una tasa variable de residuos en función del consumo de agua no es lo adecuado, ya que ambos consumos no siempre van de la mano. Considera además que el no recibir la tasa en papel es un gran inconveniente para las personas mayores y solicita que se trate este tema en alguna ocasión.

El representante del PP informa que se está trabajando en una comisión el tema de la tasa asociada al consumo de agua.

El representante de Irabazi informa de la existencia de un grupo de Facebook de donación de objetos entre particulares.

## 5. Sensibilización (Plus 55)

El representante de Kalapie realiza una exposición sobre el taller de medioambiente para personas mayores dentro del programa Plus 55.

Se abre un debate sobre las posibilidades de ampliación del taller y las sinergias que puede haber con otras entidades o iniciativas como la Agenda 21 Escolar o el programa Aztertu.

[El representante del PP abandona la reunión]

## 6. Estrategia Klima 2050

El Director de Medio Ambiente informa que se sigue avanzando en el tema y que en la próxima sesión se informará más detalladamente. Comunica que se contará con asistencia técnica tanto para la parte ambiental como para la parte de participación (la primera a cargo del el Área de Medio Ambiente y la segunda a cargo del área de Participación).

## 7. Ruegos y preguntas

El representante de Aranzadi solicita que, a poder ser, en las fuentes que están en exposición en Ondarreta, se les coloque algún sistema para interrumpir la corriente continua de agua. La Secretaría aclara que averiguará el caso señalado y solicitará a los responsables se evite el despilfarro de agua.

El representante de Haritzalde pregunta si es cierta la información aparecida en el periódico sobre un acuerdo con la Diputación para que sea este ente quien realice la gestión de las tierras en Mendizorrotz. La Presidencia informa que no le consta que exista este acuerdo, aunque sí existen peticiones para dedicar tierras municipales a pastoreo/ganado, si bien no es intención del Ayuntamiento trabajar en esa línea sino desarrollar primero un Plan de Gestión de la zona.

El representante de Eguzki solicita información en torno a los últimos incendios ocurridos en Artikutza y Mendizorrotz, concretamente: hectáreas de propiedad municipal afectada,

| | |
|---|---|
| ondokoak hain zuzen ere: eragina jaso duten udal jabetzako hektareak, eragina jaso duten zuhaitz mota eta kopurua, hartutako neurriak, hartuko diren neurriak, hauek noiz hartuko diren eta Ertzaintzaren ikerketaren inguruan zein aurrerapauso egin diren.<br>Lehendakaritza eskatutako informazioaren inguruan burututako txostenak helerazteko konpromisoa hartu du eta Fiskaltzaren aldetik zabalik dauden diligentziak daudela jakinarazi du.<br>Neurriei dagokienean, udaberri arte, natura bere kabuz bere onera nola etortzen den ikusi arte alegia, itxarongo dela eta behin balorazioa eginda berreskurapen neurriak proposatuko direla adierazi du.<br>Lehendakaritzak jakinarazi du SShop-ek Aholku Kontseiluan baja eskatu duela.<br>SEO/Birdlife-ko ordezkariak jakitera eman du Uliako mintegietan lau habia kaxa ipini direla Lore-Baratza ekimenari eman nahi izan dioten laguntza gisa.<br>Eguzkiko ordezkariak aurtengo Lilatonaren ordutegia aurreratu izanak lasterketako zenbait partaiderengan sortutako ezinegonaren berri eman du eta hurrengo edizioari begira arlo hau kontutan har dadila iradoki du.<br>Eskolako Agenda 21en ordezkariak jakinarazten du eskola batera beren proiektua azaltzera joan zedila eskatu ziotela Donostia 2016 bulegoari eta ezezko erantzuna jaso zutela. Eskaera mota honi erantzuteak duen garrantziaren berri Hiriburutzari eman diezaiotela iradoki du.<br>Bilera amaitu da. | tipo y número de arbolado afectado, medidas que se ha tomado y cuáles se prevén tomar y cuándo, así como avances en la investigación de la Ertzaintza.<br>La Presidencia se compromete a facilitar los informes realizados y que contienen la información solicitada y comunica que hay diligencias abiertas por parte de la Fiscalía. Respecto a las medidas, indica que se va a esperar hasta primavera para ver cómo se recupera la naturaleza por sí misma y tras realizar una valoración, se propondrán las medidas de regeneración.<br>La Presidencia informa que SShop ha solicitado la baja en este Consejo Asesor.<br>El representante de SEO/BirdLife comunica que se han colocado cuatro cajas nido en los viveros de Ulia como apoyo a la iniciativa Lore-Baratza.<br>El representante de Eguzki traslada el malestar de algunas participantes en la Lilaton por el adelanto del horario en la carrera de este año, sugiriendo que se tenga en cuenta de cara a la siguiente edición.<br>El representan de de Eskolako Agenda 21 informa que se solicitó a la oficina de Donostia 2016 la asistencia a una escuela para que explicaran el proyecto, recibiéndose una respuesta negativa. Sugiere que se trasmita a la Capitalidad la importancia de atender este tipo de peticiones.<br>Finaliza la reunión. |